

BESTELAKO XEDAPENAK

ELANKIDETZA-LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA

3757

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 10ekoa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita garapenerako lankidetza-programen identifikazio-faserako laguntzen deialdia, 2026ko ekitaldirako.

eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2026ko martxoaren 18ko Ebazpenaren bidez, garapenerako lankidetza-programen identifikazio-faserako laguntzak iragarri ziren, 2026ko ekitaldirako (apirilaren 24ko EHAA, 76. zk.).

Laguntzak emateko proposamena egin da, aipatu deialdiaren 17. oinarrian ezarritakoaren arabera eta deialdiaren II. eranskinean jasotako irizpideak aplikatuz. Proposamen hori ikusita, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako hautaketa-batzordeak laguntza-eskaeren azterketa teknikoa eta balorazioa egin ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ebazpen honen I. eranskinean jasotzen diren entitateei adjudikatzea eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2026ko martxoaren 18ko Ebazpenaren bidez iragarritako laguntzak (Ebazpen horren bidez, garapenerako lankidetza-programen exekuzio-faserako laguntzen deialdia egin zen, 2026ko ekitaldirako); eranskinean aipatzen dira zenbatekoak eta baldintzak.

Bigarrena.— II. eranskinean jasotzen diren entitateei laguntza-eskaerak ukatzea, deialdiko funtsak agortu direlako.

Hirugarrena.— III. eranskinean jasotzen diren entitateen laguntza-eskabideak baztertzea, eranskinean aipatzen diren arrazoiengatik.

Laugarrena.— Deialdi honetako dotazioan esleitu gabe geratu den sei euroko gerakina ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen deialdira bideratzea —proiektuen modalitatera—, 5.3 oinarrian ezarritakoa aplikatuz.

Bosgarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Seigarrena.— Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako Lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu eta hiru hilabeteen ebazpenik ematen ez bada, errekurtoa ezetsizat jo ahal izango da, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzibidea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 10a.

eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendaria,
FRANCISCO JAVIER CORTÉS FERNÁNDEZ.

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKAERAK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza (euro)
PGM-2026ID/0002	Medicus Mundi Bizkaia Elkartea	K'tal: jakintzak konektatuz, amatasun duinak eta indarkeria matxistarik eta arrazistarik gabeak eraikitzeko, askotariko lurraldeetatik.	Guatemala, Honduras eta Euskadi	65	30.000
GM-2026ID/0006	Mugarik Gabe, Lankidetzak o Gobernu Kanpoko Erakundea	Giza eskubideen defentsa eta borroka feministen iraunkortasuna indartuz.	El Salvador, Mexiko eta Euskadi	65	29.994
PGM-2026ID/0004	Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioa	Iparra-Hegoa gaitasunak ezarri, Latinoamerika eta Karibe eta Euskal Herriko erakunde eta sareak osoki babesteko, bizitza eta askatasunaren mehatxuen aurrean.	Guatemala, El Salvador, Euskadi	60	30.000

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKAERAK, FUNTSAK AGORTUTA EGOTEAGATIK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak
PGM-2026ID/0007	Alboan Fundazioa	Bake ehuleak. Emakumeak, gatazkak eta herritartasun globala, Kolonbian eta Euskadin	Kolonbia eta Euskadi	55
PGM-2026ID/0005	Intered	Zaintzen gizarte-antolakuntza eraldatzea, emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboan oinarrituta, Perun, Bolivian eta Euskadin.	Bolivia, Peru eta Euskadi	50

III. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Baztertzeko arrazoia
PGM-2026ID/0001	Tecnalia Research & Innovation Fundazioa	Trantsizio energetiko zuzenerako lurralde-ereduak: Berrikuntza-laborategien Sarea, Kuba-Euskadi	Kuba eta Euskadi	Genero-ekitatearen aldeko ekintza-planik ez izatea indarrean (Garapenerako lankidetza-programen identifikazio -faserako 2026ko ekitaldirako laguntzen oinarri arautzaileak; 6.1.3b oinarria) (2026ko apirilaren 24ko EHAA).
PGM-2026ID/0003	Asoc Kawral Fulbe Afrik Elkartea – Askafae–	Fanaye udalerriko emakumeen eta gazteen autonomia ekonomikoa indartzea, nekazaritzaren bitartez.	Senegal eta Euskadi	eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak lehenago emandako dirulaguntzarik ez izatea (Garapenerako lankidetza-programen identifikazio -faserako 2026ko ekitaldirako laguntzen oinarri arautzaileak; 6.1.2a oinarria) (2026ko apirilaren 24ko EHAA).